

IRITZI-GUTUNA



EUSKARA ETA LITERATURA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila

Maria Elisa Ituarte

IRITZI-GUTUNA

Irakasgaiak: Euskara eta Literatura / Gaztelania eta Literatura

Gaia: Argudio testuak: iritzi-gutuna

Maila: DBHko 4. maila

Saio kopurua: 8-9

Proposamenaren testuingurua:

Argudioak egunero darabiltzagu gure bizitzan. Gertakizun, arazo edo fenomeno baten inguruan dagoen tesi —iritzi, uste, postura— bat egiaztatzeko edo baztertzeko ematen diren aldeko edo kontrako arrazoiz osaturiko testua da argudiozkoa.

Sekuentzia honetan helburua da ikasle bakoitzak argudiozko testuen barruan hain hedatua den iritzi-artikuluaren ezaugarriak identifikatu eta behin hori burututakoan, horrelakoak idazten trebatzea.

Posible balitz eskolako aldizkarian (baldin badago) edo eskualdekoan... argitaratzea bultzatuko litzateke. Ez ahaztu zabalkundea sarean ere izan dezaketela horrelakoek: blog...

Landuko diren oinarrizko gaitasunak:

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: jarduera guztietan

Teknologia digitala eta IKTak erabiltzeko gaitasuna: 2. 3. eta 6. jarduerak

Giza eta Arte kulturarako gaitasuna: 3. eta 5. jarduerak

Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna: jarduera guztietan

Ikasten ikasteko gaitasuna: 1., 2., 3. eta 4. jarduerak

Norberaren ekimenerako eta autonomiarako gaitasuna: jarduera guztietan

Helburu didaktikoak:

- *Iritzi-testuak idaztea.
- *Prestatutako iritzi-testu edo -gutunaren auto-zuzenketa eta taldeko zuzenketa burutzean, egunkari, aldizkari edo blog batean argitara ematen saiatzea.
- *Argudio-testuak erabilera-esparruaren arabera sailkatzea.
- *Argudio testu motak ezagutzea eta berariazkoa duten egituraz jabetzea.
- *Argudio mota garrantzitsuenak bereiztea eta beren ezaugarriak antzematea.
- *Iritzi-testuetan modalizazioak duen garrantziaz ohartzea.
- *IKTak eta testu-prozesadoreak informazioa aurkitzeko erabiltzea.
- *Lanak egiterakoan norbere kabuz eta gustuz aritzea.
- *Zereginak gauzatzerakoan autonomia handitzen joatea.
- *Zereginak gauzatzerakoan ekoizpenen zuzentasuna eta alde estetikoak zaintzearen garrantziaz ohartaraztea.

Edukiak:

- *Argudio-testuak: motak, egitura eta ezaugarri nagusiak.

*Argudio-testuak kazetaritzan.

*Testuaren modalizazioa: pertsona deiktikoak, jarrera islatzen duten bitartekoak, balorazioa islatzen dutenak.

*Iritzi-testu edo -gutunaren planifikazioa: gaia aukeratu, tesia finkatu, argudioak bildu, tesi baliagarriak hautatu, horiek argudiatu, konklusioa hausnartu.

*Testu baten zuzentasunari eusteko baliabideak.

*Lanak garatzeko orduan, autonomia sustatu.

*Testu idatziak berrikustearen garrantzia: egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartu.

Jardueren sekuentzia:

a) Planifikatzea:

1. jarduera: Argudiatzen? Zer ikasiko dugu egiten?

b) Gauzatzea:

2. jarduera: Ezaugarriak aztertzen

3. jarduera: Iritzi-artikuluak kazetaritzan

4. jarduera: Modalizatzea! Testuetan gure azterna utziko dugu

c) Erabiltzea:

5. jarduera: Nire iritzi-gutuna planifikatzen

6. jarduera: Nire iritzi-gutuna argitara ematen

Ebaluazioa:

Adierazleak:

*Ea argudio-testu mota garrantzitsuenak bereizten dituen, eredu batzuk emanda.

*Ea emandako irizpideei jarraituz, argudio testuak alderatu eta ondorioak ateratzen dituen.

*Ea sortu beharreko testu motaren sekuentzia arketipikoa jarraitzen duen.

*Ea bilatzaileak behar bezala erabiltzen dituen informazioa aurkitzeko.

*Ea informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen duen, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.

*Ea hautatutako generoan bereziki erabiltzen diren erretorikaren eta estiloaren zenbait egitura eta prozedura identifikatu eta erabiltzen dituen.

*Ea transmititu nahi duen edukirako egokiak diren adierazpen-baliabideak erabiltzen dituen.

*Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.

*Ea nahiko ongi aplikatzen dituen elkarrekintzarako arauak: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea eta gizalegezko arau batzuk betetzea.

*Ea zereginak planifikatzerakoan eta burutzerakoan behar besteko autonomia duen.

*Ea zereginak gauzatzerakoan zuzentasuna eta alde estetikoak ere zaintzen dituen.

Tresnak:

Jardueren sekuentzian proposatuko direnak. Behaketa orriak.

1. JARDUERA. Argudiatzen? Zer ikasiko dugu egiten?

Argudioak egunero darabiltzagu geure bizitzan. Gertakizun, arazo edo fenomeno baten inguruan dagoen tesi —iritzi, uste, postura— bat egiaztatzeko edo baztertzeko ematen diren aldeko edo kontrako arrazoiz osaturiko testua da argudiozkoa.

- ❖ Hausnarketa egingo dugu gaien barneratu baino lehen. Horrela, argudio-testuei buruz dituzuen iritzia zer nolakoak diren ezagutuko dugu guztion artean eztabaidatuta.


√ Ezagutzen duzue horrelakorik?

√ Non irakurri dituzue? Eleberrietan? Egunkarietan? Eskolako txostenetan?

√ Zein uste duzue dela argudio-testuen helburu nagusia: azalpenak ematea, hartzaileak pentsatzen duena gure pentsamendura erakartzea, hau da, limurtzea eta konbentzitzea?

√ Non uste duzue agertuko direla gehienbat argudio-testuak? Prentsan? Eskolako testuetan? Aldizkarietan?

- ❖ Taldeka bilduta, saiatu argudioak ematen dituzten testuren batzuk aurkitzen. Besteak beste, egunkarietan edo aldizkarietan aurki ditzakezue. Gorde aukeratzen dituzuenak, geroago aztertzeko baliagarriak izango zaizkizue-eta. Ondoren dituzue aldizkari ezagun batzuen azalak. Horietan erraz asko aurkituko dituzue argudio-testuak. Horiek guztiak paperean nahiz Internet bidez kontsulta ditzakezue. Irudien gainean klikatuz gero, aldizkarietarako lotura zuzena izango duzue.



Zer egingo duzue sekuentzia honetan?

Bukaeran zer egingo duzuen zehaztu ahal izateko jarduera duzue lehenbiziko hau.

- ❖ Taldeka bilduko zarete helburuak zehazteko: Zer egingo duzue? Nola? Zertarako?
Gure proposamena koadro honetan ikusten duzue. Zerbait falta edo soberan dagoela iruditzen bazaizue orain da momentua egokitzeko:

Zer egingo dugu?	Zertarako egingo dugu?	Zer ikasiko dugu egiten?
✗ Iritzi-testua idatziko dugu.	✗	✗ .
✗ ematen dituzten testuak irakurriko ditugu.	✗	✗
✗ garatuko ditugu argudioak emateko	✗argudioak ematen ikasteko.	✗
✗ Ikuspuntu desberdinei erreparatu eta elkarlanean adostasun batera iristen ikasiko dugu.	✗ Iritziak defendatzeko orduan trebatuta egoteko.	✗ Elkarrekin lanean aritzen: adostasun batera iristen...
✗ ...	✗ Guk zer ikasi eta zer egin dugun azaltzeko.	✗ Argudioak ematen.
✗ ...	✗ Gure lana aurrera ateratzeko	✗ Iritziak modu arrazoituan ematen.
✗ Taldekideen iritziak kontuan izango ditugu.	✗ ...	✗ Lankidetzak hobetzen.
✗ Kritikoak izaten ikasiko dugu, eta era berean, besteen iritziak errespetatzen.	✗ ...	

ADOS?

Jada badakizue zer egingo dugun eta zertarako, eta ondorioz, zer ikasiko dugun unitate honetan.

Hori guztia burutzeko, ordea, behar-beharrezkoa da konpromisoa hartzea eta denon artean adostea.

Jarraian, lan-kontratu bat aurkezten dizuegu. Ados bazaude, bete eta sinatu. Irakasleak ere gauza bera egingo du.

- Data:
- Ikaslea:Irakaslea:.....
- Lan-hitzarmenaren iraupena:.....
- Lan egiteko nik ditudan oztopoak:.....
- Oztopoak gainditzeko hartuko ditudan neurriak:
- Nork lagunduko dit?:
- Nola berrikusiko dut lan-hitzarmena betetzen ari dela?

Lan hitzarmen hau beteko dudala adierazten dut

Ikaslea	Irakaslea
---------	-----------

2. JARDUERA. Ezaugarriak aztertzen

Lanean buru-belarri murgiltzeko unea da.

Argudio-testuak hainbat **ezaugarri** ditu bere-bereak. Zeintzuk? Taldeka lan egingo duzue zeintzuk diren ondorioztatzeko.

Erreparatu arreta handiz ondoko testuoi, eta saiatu ezaugarriak ateratzen. Bukaeran duzuen taula bete eta ondorioak ateratzeko gai izango zarete.

1. testua

Kafe zaporeko larunbat arratsaldetan, Kepari ongi zetorkion Ane eta biok ordubete lehenago elkartzea. Hartara, lasai errepasa zitzakeen autoeskolako testak. Herriko tabernako izkinan, nire zirriborroak erakusten nizkion Aneri, atondu zitzan. Kafe tantez eta zigarro hautsez zikintzen zizkidan paperak Anek. Orduan berdin zitzaidan. Urduria zen oso, ipurtarina. Bazirudien haren bizi-indarrak ez zituela menperatzen gorputzeko adarrak. Zigarro ahokada bat bestearen atzetik, ezkerreko izterra abiadura akonpasatu azkarrean, burua kulunkan eta soa nire letren gainera bildua. Mutu. Zirrara berezia pizten zidaten Anerekin igarotzen nituen larunbat ordu bete haiek.

2. testua

Birsorkuntza

Landareak, animalien antzera, birsortzeko bitariko erak izaten dituzte: sexuala eta asexuala; horri landare erresuman hazkuntzazko birsorkuntza esaten zaio. Eta bien arteko ezberdintasuna honetan datza: bigarrenarekin, hazkuntzazko hedabanatzea ere izenda litekeenaz alegia, lorturiko ondorioak beti ere landare ama bezalakoxe ihekiak dira, bai kanpoko itxuran —fenotipoan—, eta bai genetikazko osaeran ere —genotipoan—, hor gene trukaketarik ez baitago. Aitzitik, zelula gametiko bitatik sortutako enbriotik irtendako landarean, jatorrizkoaren antzekoa bada ere, harekiko aldakuntzak izan ditzake.

3. testua

Bertso eskolarik gabeko bertsolaritzaren azken ordezkarietako bat zen Joxe Lizaso. Uztapide edo Basarri edo Ernani Txiki edo Lazkao Txikirekin maiz kantatutakoa. Gaia emandako bertsoak ez zituen gustuko, eta bertsoak grabatzeak urduri jartzen zuen. Gauza batzuk ez direla kantatu behar pentsatzen zuen. Gezurra esateko ere, sentitu behar dela zioen. Txapelketetan behin bakarrik egon zen, eta bertso giroan zaildu zen.

Baina bertso-jario agortezineko bertsolaria zen. Doinu iturria beti zabalik zuenekoa. Bat-batekoaren artista. Molde zaharreko bertsoetan aparta. Andrearekin batera ia hamabi urtez gobernatu zuen Landeta jatetxea bertsolari askorentzat benetako unibertsitatea izan zela azpimarratu zuten askok. Bertsolari eta bertsozaleek, horregatik, Joxe Lizasoren dohainez hitz egin zuten atzo, heriotzaren berri izan eta berehala.

4. testua

Guztiarekin ere, tarte honetan gehien atsegin izan dudana euskal sareak elkartruke eta pertsonen arteko elkarrekintzarako azaldu duen gogo bizia izan da. Facebook, Ning eta Twitter bezalako sare birtualetan muturra sartu dugu, eta, batzuen ekimen itzelari esker, Barcamp (hemen, Basquecamp) delako ekimen irekietan elkarren berri izan dugu. Topatu, partekatu eta zabaldu. Sarean edo aurrez aurre, baina topatu, partekatu eta zabaldu. Hor dago, nire ustez, benetako indarra, horrek eraman dezake euskara sareko hizkuntza ikusezinen zerrendatik at, horrek eraman gaitzake mundu zabalera. Eta amesten jarrita, eraman al gaitzake horrek .eus domeinua lortzera?

5. testua

Berbamortutik Hitzarora

Zutabegileak aireportura joan behar izan du, behinola. Eta bere burua arizan usaindu du, berriro. Damn. Aspaldi berbazale hutsa zen, hitzak hartu eta musu ematen zien, besarkatu egin nahi zituen, jolaserako erabili eta larrutan zuritu (laztandu, kili-kiliak eragin). Orain, oster, berben ugazaba sentitzen da (eta morroi). 1.500 karaktereen esklaboa da. A, plazer bila joan zen Hitzarora, Berben Itakara. Orain, 200dik gora behar ditu astero, eta metazutabeak egiten hasi da: agur, erromantzea. Beldur da. Hitzostearen hasiera ote? Berbamortua?

Horretan pentsatzen ari da segurtasun arkutik pasatzeko aginduak eman dizkiotenean. Gerrikoa, jaka, zapatak, eraztuna, belarritakoak, ordularia, botak, jertsea: dena erantzi, dena kendu, kanpora. Biluzik sentitu da, deseroso. Orduan imaginatu du polizia izateko bokazioa sentitu duen gizon (edo andre) lotsatiaren ipuina. Aireportuan lan egiteko gogo duen pertsonaia da, beste inon ez duelako jendea erantzten ikusten. Lotsatia da, beldurrez betea. Arkua du poz eta zorigaizto. Alde batean jendea biluzten ikusten du, eta bestean, berriz, janzten. Haragia gorde eta mozorroa berriz jartzen.

Ipuin polita okurritu zaio zutabegileari. Laburra, oso. Zutabegilea pertsonaia horren bizitzan pentsatzen hasi da hegazkinera deitu dutenean, eta konturatu orduko joan egin zaio hitzaren beldurra. Uxatu du, eta pozik dabil orain, fikzioaren hodeietan. Olgetan, labain, hegan.

Batzuetan idazteko gogoia nondik ateratzen duen galdetzen diote. Ez daki nondik hasi azaltzen.

Irati Jimenez

- ❖ Testu horiek aztertu dituzue, eta bakoitzaren ezaugarriak ere jada markatu dituzue. Azpian behaketa-taula duzue. Saia zaitetzte, aztertutakoa kontuan izanda, taula betetzen. Argudio-testuak direla ebazten dituzuenak, markatu eta gorde.

EZAUGARRIAK	1. testua	2. testua	3. testua	4. testua	5. testua
Hartzaileari zuzentzen zaio					
Igorlea 1. pertsonan ari da					
Igorlea 3. pertsonan ari da					
Testuaren tonua subjektiboa da					
Xedea irakurleak konbentzitzea da					
Xedea gertakari baten berri ematea da					
Argudio-testua da					
Narrazioa da					
Azalpena da					
Objektiboki kontatuta dago					
Gaia modu abstraktuan garatu du					
Literatur kutsua du					

Hasierako hausnarketa egin diezue. ...

Egoera askotan erabiltzen dugu argudio-testua gure eguneroko jardunean: ikuspuntu bat ematean, iritzi bat arbuiazean, aukera bat justifikatzean, proposamen bati eustean, proiektu bat defendatzean, salaketa bati aurre egitean, etab.

Jarduera horiek guztiak honako testu mota estandarizatu hauetara bil daitezke:

Erabilpen eremua	Testu-generoa
Literatura	Saioa, epistola, eztabaida...
Hedabideak	Editoriala, iritzi-artikulua, debatea, mahai-ingurua, eztabaida, irakurleen posta, publizitatea...
Instituzioekiko harremanak	Eskabidea, eskaintza, txostena, poliza, instantzia, kontratuak, parlamentuko eztabaida, errekurtoa...
Pertsonen arteko harremanak	Eztabaida, erreklamazioa, iruzkina, kritikak...
Ikasketak	Txostena, tesia, iruzkina, ponentzia, kritika, komunikazioa, iradokizuna, zientzia-artikulua, azterketa (erantzuna)...

- ❖ Guk, hedabideetako eremuari eskainiko diogu arreta berezia sekuentzia-didaktiko honetan. Izan ere, hasieran adierazi dugun helburuetariko bat iritzi-gutuna idatzi eta hori nonbaiten argitara ematen saiatzea izan da. Hala ere, lehenbizi argudio-testuak sailkatzen ikastea komeni zaizue.

Ondoren, hainbat testu atal dituzue. Horietako gehienak egunkari eta aldizkari desberdinetatik atera ditugu. Binaka, irakurri itzazue arretaz eta aukeratu zein erabilpen eremuri dagokion bakoitza: *Non erabiltzen da? Non agertu da? Zein testu-genero da?* Aldamenean idatzi zein testu mota den.

6. testua

Guztiarekin ere, tarte honetan gehien atsegin izan dudana euskal sareak elkartruke eta pertsonen arteko elkarrekintzarako azaldu duen gogo bizia izan da. Facebook, Ning eta Twitter bezalako sare birtualetan muturra sartu dugu, eta, batzuen ekimen itzelari esker, Barcamp (hemen, Basquecamp) delako ekimen irekietan elkarren berri izan dugu. Topatu, partekatu eta zabaldu. Sarean edo aurrez aurre, baina topatu, partekatu eta zabaldu. Hor dago, nire ustez, benetako indarra, horrek eraman dezake euskara sareko hizkuntza ikusezinen zerrendatik at, horrek eraman gaitzake mundu zabalera. Eta amesten jarrita, eraman al gaitzake horrek .eus domeinua lortzera?

7. testua

Euskarazko Wikipediak behar zaitu

Wikipedia erreferentzia gero eta garrantzitsuagoa da Interneten. Internet non, euskarazko Wikipedia han. Eta gainera guk geuk eraikitakoa da. Guk nahi eta behar ditugun sarrerek jasoko dituen hiztegi erraldoia da euskarazko Wikipedia. Guk nahi dugun bezain zabala izan daiteke euskarazko entziklopedia librea. Wikipediak hizkuntza gutxiagotuen atea ere ezagutzen ditu, sartzeko edota irteteko. Euskarari mundura begirako leihoa irekitzen dion tresna bat gehiago da Wikipedia: euskararen territorio birtual librearen zati. Mundu hain globalizatuaren azpiegituraren oinarri den Interneten, euskara kalitatezko hizkuntza global bihurtzen laguntzen duen tresna eraginkor eta kolektibo bat da Euskarazko Wikipedia.

Iratxe Esnaola, informatikaria.

8. testua

Aspirina

Txillardegik behin eta berriro azpimarratu duen arren gizakia funtsean ez dela ziminoa baino, gizonak hurbilago duela txinpantzea arratoiak sagua baino, 1982an Los Angelesen idatzi eta 1984an argitaraturiko Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981-en hitzaurrean [27] gizakion berezitasunak zehazten ahalegindu zen. (...) Izan ere, espezie guztiok dugu besteetatik bereizten gaituen ezaugarriren bat, errinozeroak adarra, eltxoak gogaikarritasuna eta abar. Gizakiok, berriz, aspirinak egiten ditugu. Txillardegirentzat, gizakia aspirinak egiten dituen ziminoa da alde batetik, hau da, teknologia sortzen duena, gai dena, esate baterako, berez ez dagokion esparru batean bizitzeko: berez lur azala baldin badagokio ere, gizakia urpean edo airean bizi baitaiteke; bestetik, gizakiak legeak eta literatura egiten ditu, kulturgilea da.

Dena den, nola kulturaren hala teknologiaren oinarrian, hizkuntza dago, mintzamena.

Kulturaren kasuan, bistan da, kultura legegintzari eta literaturari lotzen diegun heinean bederen.

Teknologiak, aldiz, gizakien arteko harremana behar du, ezinezkoa litzatekeena hizkuntzarik gabe. Esate baterako, aurkikuntza teknologikoak belaunaldiz belaunaldi igaroarazteko ezinbestekoa da hizkuntza.

Hortaz, jo dezagun oraingo giza animalia baten berezitasuna mintzamenean datzala; gizakia, Octavio Paz en berbetan, «zimino gramatikaria» dela.

27] Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981, Elkar, Donostia, 1984, 6-12 orr.

© Markos Zapiain

9. testua

Transgenikoak gorantz, etengabe

2007an baino ia % 10 hektarea gehiago hartu zituzten iaz transgenikoen landaketek munduan. Hori adierazi du bioteknologiak nekazaritzan dituen aplikazioez arduratzen den erakunde estatubatuarrak (ISAAA), urtero argitaratzen duen txostenean.

Gora doa, etengabe, landaketa transgenikoen kopurua: 1996an landatzen hasi zirenetik, 72 aldiz handitu da landare horiekin landatutako azalera, eta ISAAAn guztiz onuragarritzat jotzen dute igoera hori. Ez da jarrera harrigarria, beren filosofia transgenikoak zabaltzea dela jakinda. Honela aurkezten dute beren burua webgunean: "irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, eta nekazaritzan agertzen diren teknologia berriak iritsarazten dizkie garatzeko bidean dauden herrialdeetako txiroei. Helburua da indar handiko teknologia horiek partekatzea haietaz baliatuko direnekin, eta, aldi berean, ziurtasunez erabiltzeko ingurune egoki bat sortzea".

ISAAAk emandako datuak oso orokorrak dira, eta irudi dezake ez duela lotura handirik gurekin. Baina ez, oso gertuko gaia dugu transgenikoena. Izan ere, Espainian hazten dira Europako Batasuneko landare transgeniko gehien. Batez ere Ebro ibaiaren arroan landatzen dituzte landareak.

Hori gutxi ez, eta Ibercajak, Ebro ibaiaren arroan kokatuta dagoen banketxeak eta Espainiako laugarren banketxe garrantzitsuenak finantzatu du, besteak beste, ISAAK argitaratu berri duen txostena.

2009/03/15 | Lakar Iraizoz, Oihane |

10. testua

Geografia jolasak

Geografia eta etnografia poetikoak uztartzen dituen album honek uharte txikiz osatutako herrialdera garamatza. Iraia Okina ilustratzailea bere bidea egiten ari da, Midas erregearen erara, ametsezko paisaia bihurtzen ukitzen dituen liburuak; kolore lausoak, forma bigunak eta landareen mutazioak diruditen pertsonaiak (mandrangora?), halakoxeak ziren Okinaren orain arteko ekarpenak: *Irudimena hegan* eta *Punpuilaren bidaia*, eta halakoxea da *Ilania*. Marrazki eta testu bana ditugu uharte bakoitzeko. Zein baino zein, 13 unibertso autonomotan zehar gure irudimena bidaian, Ponpania, Kuxinia, Betulplin... atmosfera berezi batek inguratuko gaitu. Alta, Magdalenaren punpuilak ponpatzeko makinak ez du beti berdin lan egin: irudimen eta freskotasun biziko deskribapena eta asmazioen ondo-ondoan, haien balioa gutxitzen duten beste pasarte arrunt xamarrek daude. barka diezadala atrebentzia.

Imanol Mercero,

11. testua

Olentzero maitea.

Zer moduz zaude? Ni animoz ez nabil oso ongi, baina urtero bezala idazten dizut, nahiz eta besteei politikoki zuzena ez irudit 32 urterekin oraindik ere idazten dizudala jakiten badute... bost axola! oraindik ere zugan sinesten dut, izena duen guztia badelako, bazarelako. Oraindik neure barneko haurra mintzo zait, eta entzuten segitu nahi dut luzaroan: bizi naizen artean, Eguberrietako suak segi dezala pizturik!

Neure bakardade honetatik irribarre egiten dizut, eta eskerrak eman aurtengo ekainean 32 urte bete ditudalako familiaz eta lagunez inguraturik; eta batez ere, mundu honetan gehien desio nuen oparia jaso nuelako -berak badaki eta ez dut izenik aipatuko, baina segur aski hau ez du berak irakurriko-, eta aurten «maite zaitut» hitzez esan ez badit ere, baldintzarik gabeko maitasuna adierazi zidan, benetako maitasuna eskaini, eta nik ere eman diot... beti maitatuko dut bera... betiko agurra hasierarik eta amaierarik gabeko maitasunari; benetan maitemindu nintzelako, eskerrik asko Olentzero!

Ez dizut ezer eskatuko; izan ere, askok asko eskatuko dizute, eta nik ez zaitut nekarazi nahi. Nik soilik espero dut zu, ni, haiek, bera eta gu elkartzea eta maitatzea eta heldu den urtea maitasunez beterik etortzea... maitemindurik nagoela nabari da, ala?

Muxu handi bat, Olentzero... eta laguntzarik behar baduzu, esadazu... oporretan nagoen arren, lasterka joanen natzaizu!

Ainara Maia Urroz.
Brno (Txekia).

TESTUA	Erabilpen eremua	Testu mota
6.testua		
7.testua		
8.testua		
9.testua		
10.testua		
11.testua		

Dagoeneko trebatu zarete argudio-testuen ezaugarriak bereizten eta oraingoan testu horien egiturari erreparatuko diogu. Testu mota horrek badu propioa duen egituraketa eta hori aztertzeari ekingo diogu orain.

- ❖ Eskolara egunkariak eraman eta argudio-testuak bilatu. Ea taldeka bildurik gauza zareten testu tipo horrek propio duen egituraz jabetzeko. Jarraian dituzue lagungarri izango zaizkizuen zenbait argibide. Arretaz irakurri.

Lanaldia bukatzen duzuenean aztertutako testuetan markatuta izan beharko dituzue:

- ✓ Hasierako tesia: gaiaren aurkezpena izan ohi da. Tesia edo hipotesia garatzen da.
- ✓ Argudioen gorputzaren osaketa: tesia demostratzen duten arrazoiak, argudioak ematen dira.
- ✓ Ondorioa (edo tesi berria): gorputzean emandako arrazoiaren ondorioak laburbiltzen dira. Horiek bi motatakoak izan daitezke: frogak, guk esandakoa baieztatzeko erabiltzen ditugunean, edo gezurtatzea, argudio bati kontra egiteko erabili izan badira.

- ❖ Erabili dituzuen albistearen artean bost aukeratu eta sailkatu beraiei ezaugarrien arabera. Esaterako: tesia hasieran argi adierazten dutenak, tesi hori hipotesia denean (zientifikoak), norbere argudioak baieztatzeko idatzitakoak, beste norbaiten argudioak errefusatzeko idatzitakoak...

Behin hori bukatuta, azpiko koadro urdinean duzuen informazioa irakurri eta alderatu ea egindako aukeraketa eta sailkapenarekin bat ote datorren.

Argudio testuen egitura

Tesi edo arazo batetik abiatuz, tesi berri edo ondorio batera heltzen da argudio-testua, horretara iristeko beharrezko diren argudioen edo arrazoiaren bidez.

Hiru pausoko eskema bati jarraitzen dio normalean: hasierako tesia, argudioen gorputza eta tesi berria edo ondorioa.

- **Hasierako tesia.** Sarrera modura, gaia aurkezten da bertan, eta abiapuntu den arazoa, egoera edo kontra egin nahi zaion testuari buruzko aipamena egiten da. Hasierako tesi edo ideia horren inguruan etortzen da ondorengo hausnarketa guztia, dela tesi hori berretsiz, dela aurka eginez. Ez da beti agertzen den zatia, modu inplizituan ere egon baitaiteke.
Tentuz zaintzen den zatia da normalean, argudiatzaileak hartzailearen arreta eta haren aldeko jarrera irabazi nahi izaten ditu-eta hasiera-hasieratik. Hainbatetan, hasierako tesi hori baino lehenago, sarrera-lana eta gaiaren aurkezpena eta nondik norakoa egiten duen urrats bat gehiago ere egon daiteke.)
Testu zientifikoetan **hipotesi** hitza erabiltzen da hasierako tesi hori izendatzeko.
- **Argudioen gorputza.** Hipotesia edo ikuspuntua demostratzen eta justifikatzen duten arrazoi (=argudio), ideia, datu eta frogen azalpenek osatzen dute. Askotan, kontra egin behar zaion ideiak ere agerira ekartzen dira, horien aurkako argudioen arrazonamendu logiko guztia hobeto ikusteko.
Argudiatzailea hasierako tesiarekin ados badator, hura defendatzeko eta justifikatzeko erabiltzen dituen argudioei **frogak** deritze. Hasierako tesi hori planteamendu okerra iruditzen bazaio, ordea, argudioak hari kontra egiteko eta hura arbuiatzeko erabiltzen ditu: **errefutazioa** edo **gezurtatzea** deritza horri.
Zenbaitetan aurkariari eginiko amore emateak ere egoten dira: “arrazoi guztia duzu horretan baina...”; “ezin hobeto adierazi duzu; hala ere...” Baina norberaren argudioei indarra emateko amarruak baino ez dira, eta beti aurkaritzako juntagailu edo lokailuak (baina, ordea, hala ere..) erabiltzen dira kontrakotasuna adierazteko.
- **Ondorioa (edo tesi berria):** Argudioen gorputzeko datu, ñabardura eta arrazoiaren azken azalpena da, non hasierako tesiari (edo kontrako tesiari) aurrez aurre jartzen zaion, dela hura aberastuz, dela kontrako tesia erabat errefusatzuz. Kausalitate-lotura gorde behar du beti hasierako tesiarekin. Gerta daiteke azken tesia baino lehen ere zati-konklusio batzuk agertzea. Horiek, hala ere, erabili diren argudio partzialen konklusioak baino ez dira; azken tesia, ordea, testu osoarena da. Eta azken tesiaren erantzulea argudiatzailea da beti.

3. JARDUERA. iritzi-artikuluak kazetaritzan.

Lehenago ere aipatu dizuegu, baina argudio-testuen barruan hedabideetan (kazetaritzan) erabiltzen direnei eskaini nahi diegu tarte handia. Eta, batik bat, prentsa idatziari begira jarriko gara.

Edozein komunikazio egoeratan, igorleak norbaitentzat sortzen du testua, asmo jakin batekin. Prentsak komunikazio asmo ugari ditu.

❖ Talde handian bilduta adierazi zeintzuk izan diren komunikazio asmo horiek: Bost edo sei aipatu. Egunkariak izan eskuetan erantzuna emateko...

- ...
- ...
- ...
- ...
- ...
- ...
-

Igorleak bere komunikazio-asmoaren baitan aukeratzen du zein testu mota erabili behar duen diskurtsoa sortu eta garatzeko. Horixe bera da kazetariak egiten duena: **iritzia** ala **informazioa** eman nahi duen kontuan hartuta, kazetaritza genero bat edo bestea aukeratzen du.

Guri, iritzia emateko balio dutenak interesatzen zaizkigu bereziki kasu honetan.

Ondorengo taulan dituzue horiei buruzko zehaztapen garrantzitsuenak.

❖ Taldeka bete taula honetan falta diren datuak eta definizioak.

GENEROA	EDUKIA	EZAUGARRIAK
EDITORIALA		▪ ▪ ▪ ▪ ▪
ARTIKULUA	Editorialaren antz handia du. Norbaitek bere izenean, eta ez komunikabidearenean, gertakizun bat baloratuz eta interpretatuz, bere ikuspegia ematen du.	▪ 1. pertsonan idatzita dago ia beti. ▪ Sinatuta egoten da. ▪ Titulua du. ▪ Argudio-testuaren ezaugarriak ditu.
GUTUNA		▪ Aurreko berdinak

Euskara eta Literatura, DBH Bigarren zikloa , ELKAR/IKASTOLEN ELKARTEA

- ❖ Jarraian egunkarietatik ateratako zenbait testu eskaintzen dizugu. Aurrekoetan egin duzuen bezalaxe, binaka ekingo diozue lanari. Lehenbizi irakurri testuok eta gero sailkatu beheko taulan.

12. testua



Maite Goñi

Topatu, partekatu eta zabaldu

Honekin batera, aurretik sortutako espazioen heldutasun aroa iritsi dela dirudi. Urte batzuk honetan daramatzatenek azken berrikuntzak sartzeari ekin diote: itxurak berritu, RSS jarioak erantsi, multimedia baliabideak txertatu, kanal eta atal berriak ireki, erabiltzaileen parte hartzea erraztu eta sustatu... Horren adibide ditugu Eibar.org, Berria.info eta Argia.com, besteak beste. Nahitaezko urratsa, aurrera egingo badugu.

Bestalde, euskal internautok aspaldi honetan hitza eskatzen gabiltza eta hitz hori entzun egin da 200 erantzunetik gorako artikulu batean (zaila da horrelakoak topatzea euskal blogosferan), eta zazpi@2007 izeneko euskarazko 7 webgune onenen hautaketan. Hemen ere guztira 200 lagun izan dira bozka egin dutenak eta Elebila.eu euskarazko bilatzailea hautatu dute. Kasualitate hutsa? Kopuru hori al da euskal amaraun zaleon muga?

IKTeroak
proiektuko arduraduna

© 2009
ARGIA.com

Software libreari dagokionez, gazi-gozaok izan dira nagusi aurtengoan. Haren erabilera han eta hemen aldarrikatu da, eta herritarrei ezagutzera emateko ekimen ugari burutu da. Horiek gozoak. Nolanahi ere, gaziak Eusko Jaurlaritzak software libre ezartzeko aukerari buruzko ikerketatik etorri dira. Ateratako ondorioen arabera, hark gabezia batzuk dauzka, eta Jaurlaritzak dituen behar guztiei ez erantzuteaz gain, egokitze prozesua garestia izango litzateke. Ba al da oraindik software librearen auzian diru kontuak gai nagusia direla sinesten duenik? Guztiarekin ere, tarte honetan gehien atsegin izan dudana euskal sareak elkartruke eta pertsonen arteko elkarrekintzarako azaldu duen gogo bizia izan da. Facebook, Ning eta Twitter bezalako sare birtualetan muturra sartu dugu, eta, batzuen ekimen itzelari esker, Barcamp (hemen, Basquecamp) delako ekimen irekietan elkarren berri izan dugu. Topatu, partekatu eta zabaldu. Sarean edo aurrez aurre, baina topatu, partekatu eta zabaldu. Hor dago, nire ustez, benetako indarra, horrek eraman dezake euskara sareko hizkuntza ikusezinen zerrendatik at, horrek eraman gaitzake mundu zabalera. Eta amesten jarrita, eraman al gaitzake horrek .eus domeinua lortzera?

13. testua

Horrela deitzen die Will Richardson pedagogoak gaur egungo ikasleei, natibo digitalak, gu baino trebatuago baitaude teknologia berriak erabiltzen, haiekin batera hazi direlako. (...) Gehienek erabiltzen dute bat-bateko mezularitza, fotolog bat dute, eta, askok, eremu bat MySpace gunean. (...) Adituek diote gazte horiek beste modu batean pentsatzen dutela, garatu baitituzte buru hipertestualak, salto egiten baitute informazio batetik bestera, beren egitura kognitiboak paraleloak bailiran, ez sekuentzialak. Ondorioa: gazte horiei ezin diegu irakatsi modu linealean, azken ehunka urteetan irakatsi den moduan. (Gizakom, 08-06-24)



Arg.: Argazki Press
Joxe Aranzabal,
HUHEZIKo irakaslea

14. testua

Haur kritikoak



Arg.: Iñigo Azkona

Haurrek pertsona helduek baino garbitasun handiagoarekin hausnar dezakete, haiek jada euren aurreiritziak dituztelako. Egia esan, ipuin tradizionalak sozializazio funtzioa dute eta antzerkia horretarako funtsezko bitartekoa da. Antzezlan bat ikusten duen haurrak jaso ditzakeen estimuluak ere garrantzitsuak dira. Eta muntaia ona bada, zentzu guztietan da aberasgarria umearentzat (...) Nik beti defendatu izan dut antzerkia taula gainean ikusi behar dela, aktoreekin eta zuzenean, bere parafernalia guztiarekin.

(Noticias de Gipuzkoa, 08-03-10)

Jokin Oregi Antzerki zuzendaria eta aktorea

15. testua

Gure umeak geure auzoan eskolatu nahi ditugu

Aurten 27 familia saiatu gara matrikulatzen gure umeak urte bikoien gelan, Abadiñoako Zelaieta Herri Eskolan, 2009-2010 ikasturterako.

Eusko Jaurlaritzak, aitzakiatzat harturik ume guztientzako plazarik ez dagoela, erabaki du ume batzuk beste eskola batera bidaltzea, gure auzotik hiru kilometrora, oso ezaugarri soziolinguistiko ezberdinak dituen beste gune batera.

Behean sinatzen dugun gurasook uste dugu gure umeak euren auzotik kanpo matrikulatzeak ume horien deserrotzea ekarriko duela. Uste dugu gure umeek eskubide osoa dutela euren ingurune hurbileko beste umeekin batera hazi, ikasi eta gizarteratzeko. Eskolako bizikidetzak funtsezko gauza da adin horretako umeen integrazio eta prestakuntza prozesurako, eta talde hau osatzen duten 27 umeak dagoeneko lokarri sendoz elkartuta daude, orainaldi eta etorkizun komun bat partekatzen dutelako. Lokarri horiek utzikeria burokratiko hutsez haustea onartezina da.

Ez dugu ulertzen nola Eusko Jaurlaritzak jaiotza-tasa bultzatzeko kanpainak egiten dituen, eta gero, ume gehiago egoteagatik eskoletan plaza gehiago behar direnean, ume ugaritasun hori arazo bihurtzen den. Gure ume guztiak geure auzoko eskola publikoan nahi ditugu, bakoitza bere eskola-plazaren jabe.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak entzungor egin dio gure eskariari, eta orain arte ez digu onartu ezta eurekin batartzea ere gaia elkarrekin aztertu eta konponbideak bilatzeko, nahiz eta Zelaietako Herri Eskola eta Abadiñoako Udala osorik eta erabat geure alde dauden.

Gurasoontzat garrantzi handiko pausoa da gure umeak eskolara lehen aldiz eramatea euren kabuz ibiltzen eta gizarteratzen has daitezen, eta ez dugu nahi momentu eder hori trauma bihurtzea umeentzat.

Horregatik prest gaude behar den indar guztia egiteko, gure ume guztiek aukera izan dezaten euren auzoko Herri Eskolan ikasteko. Oinarritzko eskubide demokratikoa da, eta ezerk ez inork ez du lortuko eskubide horri uko egin diezaiogun.

Onartu gure umeak Zelaietako herri eskolan orain! Inor kanpoan utzi barik!

Unax Sagredo, Nerea Basauri eta Elisabet Puiggros. Abadiñoako guraso taldearen izenean (Abadiño).

❖ Bete ezazue taula testuak irakurri aurretik emandako informazioa baliatuz.

	EDITORIALA	ARTIKULUA	GUTUNA	BESTELAKOAK
12. testua				
13. testua				
14. testua				
15. testua				

❖ Jada, sailkatuta dituzuenez, aukeratu lehenbizikoa eta banaka, saiatu galdera hauei erantzuten:

- ✓ Nor da testuaren igorlea? Nabari da igorlearen presentziarik testuan?
Zein pertsonatan ari da?
Beti darabil aditz-pertsona bera eta bakarra?
Noiz darabil bata eta noiz bestea? Eman adibideak.
- ✓ Zein da iritzi-testu horren gaia?
Zein jarrera, zein ikuspuntu defendatzen du egileak/igorleak?
Zein/zeintzuk esalditan nabarmentzen da igorlearen ikuspuntua?
- ✓ Igorleak zerbaiten salaketa edo kritika ere egiten du. Zer salatzen du?

4. jarduera. Modalizatzer! testuetan gure aztarna utziko dugu

Orain arte irakurri dituzuen testuak argudio-testuak diren edo ez, igorlearen iritzirik agertzen den edo ez, aztertu duzue. Jada badakizue iritzi-testuetan igorleak bere presentzia markatu egiten duela, hor dagoela esaten digula: bere pentsamenduak azaltzen dizkigu, ideia propioak garatzen ditu, modu subjektiboan mintzatzen zaigu...

Bere presentzia nabarmentzeko, bere jarrera plazaratzeko, baliabide zenbait, hizkuntz bitartekoak, erabili behar ditu igorleak.

Hizkuntz bitarteko horiek **modalizatzaileak** edo **modalizazio-markak** izenekin ezagutzen dira.

Horiexek dira, hain zuzen, oraingoan aztertuko ditugunak.

- ❖ Goazen, bada, modalizazio mota desberdinak ezagutzera. Horretarako, lehenbizi aurreko jardueran erabilitako 13. testutik atera ditugun bi paragrafo eskaintzen dizkizuegu. Arretaz irakurri eta ondoren dituzuen galderei erantzun binaka.

A)

Honekin batera, aurretik sortutako espazioen heldutasun aroa iritsi dela dirudi. Urte batzuk honetan daramatzatenek azken berrikuntzak sartzeari ekin diote: itxurak berritu, RSS jarioak erantsi, multimedia baliabideak txertatu, kanal eta atal berriak ireki, erabiltzaileen parte hartzea erraztu eta sustatu... Horren adibide ditugu Eibar.org, Berria.info eta Argia.com, besteak beste.

B)

Bestalde, euskal internautok aspaldi honetan hitza eskatzen gabiltza eta hitz hori entzun egin da 200 erantzunetik gorako artikulua batean (zaila da horrelakoak topatzea euskal blogosferan), eta zazpi@2007 izeneko euskarazko 7 webgune onenen hautaketan. Hemen ere guztira 200 lagun izan dira bozka egin dutenak eta Elebila.eu euskarazko bilatzailea hautatu dute. Kasualitate hutsa? Kopuru hori al da euskal amaraun zaleon muga?

- ✓ Zeinetan ageri da markatuta idazlea?
- ✓ Zertan nabaritu duzue igorle/idazlearen presentzia?
- ✓ Bere iritzia ematean duenez, ziurtasunez ari da ala probabilitateak eskaintzen dizkigu?
- ✓ Baloraziorik egiten du? Zer nolakoa?

Aurreko jarduera burutu ostean, aztertu jarraian duzuen gai horri buruzko teoria. Labur azaltzen saiatuko gara, adibideen bidez errazago ikusiko baituzue aipatzen den guztia.

Modalizazioa

1. Pertsona deiktikoak

Arestian ere esan dugu iritzi-testuetan, igorleak bere buruari erreferentzia egiten diola maiz. Horrelakoetan **1. pertsona gramatikala** erabiltzen da. Igorleak hartzailea inplikatu nahi duenean, ordea, **2. pertsona gramatikala** erabiltzen du.

Bai lehen pertsona, eta bai bigarrena ere, hitz desberdinetan marka daitezke. Erabilienak dira ondoko hauek:

a) Pertsona izenordainak: igorleak bere buruari erreferentzia egiteko erabiltzen du. Bi modu daude:

a.1.) Igorleak bere buruari erreferentzia egiteko:

ni, neu, nire neuretzat, neroni... bere izenean
hitz egiten duenean edo pluraleko formak
talde baten izenean hitz egiten duenean: gu,
geu, geure, gurekin...

a.2.) Hartzaileari erreferentzia egiteko: hi, hik,
heuregan; zu, zeu, zerori, zurekin; zuek,
zuen...

b) Aditzeko pertsona morfemak: aditzak, beren forma jokatuan darabilgunean, ekintza bakoitzean partaide direnei (igorlea, hartzailea, edo 3. pertsona edo errealitate bati) egiten die erreferentzia.

Adibideak: Ziur nago	N ⇒ ni bere buruari erreferentzia
Elkarrekin gaude	G ⇒ gu
Ziur hago	H ⇒ hi hartzaileari erreferentzia
Ziur zaude	Z ⇒ zu
Ziur zaudete	Z (+te) ⇒ zuek
Bat dator	D ⇒ hura/bera 3. pertsona edo errealitate bati erreferentzia
Bat datoz	D(+ z) ⇒ haiek/eurak

Hauek guztiak baliagarriak dira partaide bakar bati erreferentzia egiten zaionean, hau da, aditzaren **NOR aditz-sisteman**.

Aldiko bi partaideri erreferentzia egiten zaienean euskarak bi aditz-sistema garatu ditu: **NOR-NORI** eta **NOR-NORK**.

Aldiko hiru elementuri, solaskideei (igorle eta hartzaile) eta pertsona edo errealitate bati erreferentzia egiteko, aditz-sistema bakarra du euskarak **NOR-NORI-NORK**.

Dagoeneko konturatuko zinen aditza zenbaitetan hitz bakar batean adierazita agertzen dela eta besteetan, ordea, multzo batean.

Egituraren arabera, hiru motatakoak dira aditz jokatuak:

- 1) Trinkoa edo sintetikoa:** hitz bakar batek osatzen du eta berak daramatza esanahi lexikoa eta baita pertsona eta denboraren markak ere: dakartza, geunden, datozkit...
- 2) Perifrastikoa edo konposatua:** aditz nagusiak beste laguntzaile bat behar du: etorri zaizkit, ekarri genizkion, joan da... kasu honetan, aditz laguntzaileak markatzen ditu pertsona, numero eta denbora markak.
- 3) Aditz-lokuzioak:** hauek ere aditz-konposatuak dira berez, baina egitura berezia dute. Esanahi aldetik hitz bakarra balira bezala funtzionatzen dute.

Azalpen teorikoetan ikusi duzuen legez, aditzak ere modalizazio-markak dira, hiztunak adierazitakoari edo gertatutakoari buruz duen iritzia adierazten baitute.

- ❖ Aditzak markatzen dituen pertsonen egin diegu kasu, eta horiei buruzko azalpenak irakurri dituzue. Orain, berrikusi teoria irakurri aurretik erantzun dituzuen galderen erantzunak.

- ✓ Zuzenak dira eman dituzuen erantzunak?
- ✓ Alderatu gainontzeko ikaskideek eman dituztenekin.

Modalizazioa

- Jarrera

Igorleak bi modutan azaldu dezake esaten duena: **Ziurtasunez** edo **posible** balitz bezala. Jarrera horiek adierazteko bitarteko bat baino gehiago ditu igorleak. Bestalde, jarrera horietan **iritzi soila** eman dezake, edo bestela, gai batekiko duen **adostasuna** edo **desadostasuna** azaltzen saia daiteke.

- ❖ Bete ezazue ondorengo taula talde txikietan. Gero, zuzendu irakaslearen laguntzarekin.

ZIURTASUNA	PROBABILITATEA
*Iritzi-aditzondoak: noski, jakina, ezbairik gabe,.....	*Iritzi-aditzondoak: itxuraz, agian, nonbait.....
*Hauek bezalako esamoldeak: jakina denez, zalantzarik gabe/barik, ziur egon,.....	*Hauek bezalako esamoldeak:
*Aditz modalak:	*Aditz modalak: iruditut, pentsatu, uste izan, susmoa eduki.....
*Aditz moduak: Indikatiboa eta ahalera erreala:.....	*Aditz moduak: baldintza, ahalera irrealak:.....

**** Nahia edo komenientzia adierazteko:** subjuntiboa da gehien erabiltzen den aditz forma:

**** Agindua emateko:** Agintera:
 Subjuntiboa:
 Baldintza:
 Aditz modalak:.....

- ❖ Taldeka, erabaki hitzunik **ziurtasuna edo probabilitatea** adierazteko asmoa duen honako esaldi hauetan eta aztertu horretarako erabiltzen dituen aditzak

ESALDIAK	Ziurtasuna	Probabilitatea
✗ Norbaitek gezurra esan duelakoan nago. ✗ Maitasunak pasiorik beroenak eta gorrotorik sakonenak eragin ditzake. ✗ Garraiobide publikoen indartzea ezinbesteko neurria da trafikoaren arazoa arintzeko. ✗ Kimikak ekarpen handia egin liezaioke medikuntzari sendagaien alorrean. ✗ Komenigarri litzateke, ahal izanez gero, urtean behin bederen oportetara irtetea. ✗ Arazo hori konponduko da noizbait. ✗ Litekeena da bide egokiena hori izatea, zalantza ugari ditudan arren. ✗ Baliabide naturalen gehiegizko ustiapenak kalte nabarmenak eragiten ditu ingurumenean. ✗ Eskolaren ardura litzateke ikasketak garai berriekiko premietara egokitzea. ✗ Litekeena da arazo hori noizbait konpontzea. ✗ Lan hori edozeinek egin dezake.		

Jatorria: Hizkuntzen Tratatua Bateraturako materialak
 Egilea. Nerea Badiola Uribe

- ❖ 3. jardueran irakurri dituzuen testuen artean bat hautatu eta bilatu ziurtasuna edo probabilitatea markatzen duten hitzak, esamoldeak, aditz moduak... eta zerrendetan antolatuta eman.


- Modalizazioa

Balorazioa

Testu bat sortzen duenak —igorleak—, informazioa emateaz gainera, informazio horrekin batera bere iritzia eman eta, hala nahi izanez gero, **balorazioa** ere gehitu diezaioke.

Balorazio hori positiboa, aldekoa, zein negatiboa edo aurkakoa izan daiteke.

- ❖ Taldeka erabaki honako adierazpen hauek zer adierazteko balio duten, eta sailkatu azpian duzuen taulan. Beste adierazpenik bururatzen bazaizue, hori ere idatzi.



Iritzia	Desadostasuna	Zalantza

- √ Zer nolako aditza dute ziurtasuna adierazteko erabiltzen diren esaldiek?
- √ Eta probabilitatea adierazten dutenek?

5. JARDUERA: Nire iritzi-gutuna planifikatzen

Unitate honetan jada ikasi duzue zer den argudio-testu bat, zenbat mota dauden, non erabiltzen den horietako bakoitza, igorleak —egileak—, bere iritzia plazaratzeko orduan erabil ditzakeen baliabideen berri ere izan duzue: testu modalizatzaileak zein diren ezagutu eta aztertu dituzue...; bada, garaia da zuek ere testuren bat ekoizten has zaitezten!

Horretarako, oso argi izan behar duzue testu bat sortzea oso prozesu korapilatsua dela eta testua ona izan dadin, lan handia eskatzen duela. Beraz, planifikazioari ekingo diogu. Banaka arituko zarete oraingoan.

1. **GAIA AUKERATU** behar duzu beste ezer baino lehen. Hau da, zein izango da zure gutunean jorratuko duzun gaia? Kontuan izan, gai bati buruzko iritzi-testu bat (gutuna, kasu honetan) idazteko, gai hori ondo ezagutu beharra dagoela. Hots, norbait zerbaitetaz informatzeaz gain, konbentzitzea nahi baduzu, argumentu serioak eta arrazoi biribilak eman beharko dizkiozu.

Hasiera batean, hobe eguneroko gai errazekin trebatzen bazara: eskolako kontuak, telebistako programaren bati buruzko iritzia, kirolen bati buruzkoa, gazteen aldarrikapenen bati buruzkoa...

2. **TESIA edo norberaren IKUSPUNTUA** argi izan beharra dago. Ez da nahikoa alde edo kontra zaudela esatearekin, hartzailea konbentzitu egin beharko duzu, eta horretarako ezinbestekoa izango da aukeratutako gaiari buruzko zehaztasunak ondo ezagutzea.

3. **Aldeko edo kontrako ARGUDIOAK ORDENATU** beharko dituzu hurrena. Tesia defendatzeko argudioak garrantziaren arabera antolatuta eman beharko dituzu. Bestalde, ez ahaztu argudioa horiek ondo dokumentatutakoak izatea komeni zaizuela. Ez dizu balioko: “Nik uste dut”, “Nire gusturako” eta horrelako esaldi hutsekin osatutako diskurtsoak. Argudioek, arrazoiak, pisutsuak izatea komeni zaizu.

4. **Hasierako tesia (sarrera), argudioen gorputza eta ondorioa** dira argudio-testu baten atalik garrantzikoak: Zure kasuan, errazago egingo zaizu beste modu honetan planteatzen baduzu: **sarrera, tesia edo iritzia defendatzeko arrazoiak edo adibideak eta konklusioa.**

5. **HARTZAILEAren profila** ere kontuan izan beharrekoa da. Argi izan behar duzu nori zuzendu nahi diozun testua (eskolako zuzendariari, gazte-aldizkari bateko irakurleei, lagunei, ezezagunei...). Gutuna baldin bada, norentzat den argi adieraziko behar da, eta baita, nork idazten duen

ere (zuek). Errepasatu **modalizatzaileei** buruz ikasi duzun guztia eta **erregistro** egokia aukeratu.

6. Kontuan izan **ARGITARATZEKO** aukerarik baldin badaukazu aurreko pauso guztiak are arreta handiagoarekin burutu beharko dituzula. Berrikusi ortografia, puntuazioa...

❖ Zure txanda da! Hartu behar duzun denbora eta idatzi zirriborroa.



- ❖ Behin zirriborroa idatzita, eman aldamenekoari, eta arretaz irakurri bata bestearena. Bete jarraian duzuen kontrol-orria.

KONTROL-ORRIA	BAI/EZ	ZUZENKETARAKO IRADOKIZUNAK
Jasotzailea konbentzitzeko xede argia du testuak		
Egitura argia du: sarrera (tesia), gorputza (tesiaren argudiaketa) eta konklusioa.		
Testuaren tesia argi dago		
Tesiaren aldeko argudioak argi eta ondo garatuta daude		
Kontrako tesia ezeztatzeko argudioak ondo erabili ditu		
Paragrafo bakoitzak ideia bakarra garatu du		
Paragrafoak euren artean ondo lotuta daude. Kohesio elementuak ondo erabilia daude		
Erregistro egokia erabili du		
Igorleak argi uzten du bere iritzia zein den		
Puntuazioa egokia da		
Modalizazio-markak egoki erabilia daude		
...		
Testu hau iritzi-gutun egokia da?		

- ❖ Behin iradokizunak jasota, zuzendu egingo duzue zuen iritzi-testua. Gero, ondo legoke zuen iritzia partekatzeko, gelan ozenki irakurtzea bakoitzak berea.

6. JARDUERA: Nire iritzi-gutuna argitara ematen

Hasieratik esan dugu sekuentzia didaktiko honen helburu garrantzitsuenetariko bat iritzi-gutuna idatzi eta nonbaiten argitara ematea zela.

Aurreko lan batzuetan ezagutu izan dituzue *blog*-ak, eta ez gara orain zehaztapenetan hasiko. Hala ere, gogoan izan horrelako kaiera informatiko batean idaztea erabakiz gero, jende askok irakur dezakeela, eta baita, jakina, paperezko egunkari batean argitaratzen baduzue ere.

Zuen testua ekoizteko aukeratutako gaiaren arabera saia zaitezke lehenbizi eskolako aldizkarian argitara ematen. Bestalde, eskualde askotan badira HITZA egunkariak ere, eta gaia hurbilekoa baldin bada, oso plaza egokia izan daiteke zuen iritzi-gutuna ezagutarazteko. Gainera, HITZAK edizio elektronikoa ere badu eta iritzi-foroak eta abar zabalik egoten dira.

Hona hemen helbide erabilgarri batzuk:

www.berria.info

www.11barri.info

www.hitza.info

www.blogari.net Sortu zure bloga di-da batean. Web orri hau zabaldu eta eskuin aldean zerrenda luze-luzea aurkituko duzue. Zuek bezala, hala nahi izan duten guztiek ireki dituzten blog-etarako sarrera zuzena aurkituko duzue.

www.uztarria.com Sarrerak izateaz gain, atari honetan blog-ak sailkatuta agertzen dira.

Baduzue, beraz, non begiratu, non argitara eman zuen iritziak. Orain animatzea besterik ez zaizue falta. Aurrera, bada!

- ❖ Baina, oraindik badugu zeregintxo bat burutu gabe. Egindako lana baloratu behar duzue. Saia zaitezte zintzoki erantzuten eta denon artean ondorioak ateratzen.

UNITATEA BALORATZEKO GALDEKETA

1. Unitate honetan ikusitako edukietatik zein interesatu zaizu gehien eta zein gutxien?
 - Argudio-testuen ezaugarriak eta erabilpen eremua
 - Argudio-testuen egitura
 - Iritzi-artikuluak kazetaritzan
 - Modalizatzailleen erabilera iritzi-artikuluetan
 - Iritzi-gutunaren planifikazioa.
2. Zure ustez, ba al da gehiago landu beharko litzatekeen edukirik? Aipa itzazu.
3. Zein jarduera kostatu zaizkizu gehien?
4. Zein jarduera kenduko zenuke/zenituzke?
5. Azken ekoizpena (iritzi-gutuna) prestatzeko laguntza eta informazio nahikoa izan duzu?
6. Aipa itzazu unitate honetan ikasitako, eta zure ustez eguneroko bizitzarako, baliagarriak diren edukiak.
7. Nola baloratuko zenuke amaitu berria duzun unitatea? (8tik 10era)
 - Unitatearen edukiak:
 - Erabilitako metodologia:
 - Erabilitako materialak:
 - Saioen erritmoa:
8. Zure ustez nola hobetu daiteke unitate hau?
Iradokizunak